

ETXEPARE

EUSKAL INSTITUTUA

MEMORIA
2016



ETXEPARE
EUSKAL INSTITUTUA

MEMORIA 2016

www.etxepare.eus

Sarrera

Introducción

Etxepare Euskal Institutua euskara eta euskal kultura munduratzea helburu duen erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzak 2010ean abian jarri zuena. 2015eko irailaz gerotzik Donostiako Tabakaleran du behin betiko egoitzia; bertatik euskal kulturaren enbaxadore lanak egiten jarraitu du 2016an, euskal hizkuntza eta sorkuntza hedatzeko konpromisoari helduz. Horretarako, arte diziplina guztiak sustatzeko ekintzak eta programak bultzatzeari eta nazioarteko erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlanean aritzeari eutsi dio.

EUNIC, Europar Batasuneko kultura institutu nazionalen sareko kide elkartu den aldetik, Etxepare Euskal Institutuak lanean jarraitu du kultura diplomaziaren alorrean, diplomazia mota berri honen definizioaren eta funtzioen inguruan European izaten ari den eztabaidaren erdigunean. Sarearen baitan ekitaldiak antolatzen ere jarraitu du –musika, poesía, literatura...– Bruselan dauden nazioarteko hainbat erakunderekin batera.

2016. urtean Etxeparek euskal kultura eta euskal sortzaileen lana kanpoan sustatzeari ere ekin dio, ohiko bideetatik. Batetik, euskal sorkuntzaren kampoko zabalkudea bera babestea xede duten diru-laguntzen deialdiak deitu eta kudeatu ditu –itzulpengintzarako, antzerki, musika eta dantza birak burutzeko, bidaia-poltsak zinegile zein idazleentzat, laguntzak arte plastiko eta ikuszkoen alorrean–; bestetik nazioarteko azoketan eta topagune profesionaletan euskal autoreen eta enpresen partaidetza antolatu eta bermatu ditu Institutuak, kasu honetan ere diziplina guztieta.

Bestalde, ekimen zehatzen sustapenari dagokionez, aurreko urteetako jarduera ia guztiak jarraipena izan dute, eta zenbait kasutan osatu edo aberastu ere egin dira, euskal sortzaileentzat antolatutako nazioarteko

El Instituto Vasco Etxepare es una entidad pública puesta en marcha por el Gobierno Vasco en 2010 con la misión de difundir la lengua y la cultura vasca en todo el mundo. Desde su sede definitiva en Tabakalera –donde se instaló en septiembre de 2015–, a lo largo de 2016 el Instituto ha continuado trabajando como embajador cultural, fiel al compromiso de difundir el euskera y la creación vasca. Con ese fin ha impulsado actividades y programas para la promoción de todas las disciplinas artísticas y trabajado conjuntamente con entidades y organizaciones internacionales.

En su calidad de miembro asociado de EUNIC, red de institutos nacionales de la cultura de la Unión Europea, el Instituto Vasco Etxepare ha seguido trabajando en materia de diplomacia cultural europea, precisamente en el mismo centro del debate sobre la definición y funciones de este nuevo modo de diplomacia. Y ha seguido participando activamente en la organización de eventos –música, poesía, literatura...– junto a otros organismos internacionales sitos en Bruselas.

En 2016 Etxepare ha continuado también promocionando en el exterior la cultura vasca y la obra de los creadores y creadoras vascas por las vías habituales. Por un lado, ha convocado y gestionado subvenciones para la difusión exterior de la creación vasca –ayudas para la traducción literaria, giras de teatro, música y danza, bolsas de viaje para escritores y profesionales del cine, muestras de artes plásticas y visuales ...–; por otro ha organizado y apoyado la presencia de autores y empresas en ferias y encuentros profesionales internacionales, también en todas las disciplinas.

En cuanto a proyectos específicos se refiere, ha garantizado –y en algunos casos ampliado– la

egonaldi artistikoak, kasu. Horretarako Etxeparek hitzarmenak, babes kontratuak eta lankidetzarako akordioak sinatu ditu, bai euskal erakunde eta eragileekin, kankoan egiten dute lanari babes emateko asmoz, bai atzerriko erakunde eta programazio estrategikoekin, euren egitarauetan “euskal leihoa” eta euskal sortzaileak har ditzaten.

Etxeparek, beste eragile batzuekin elkarlanean, kultura programa berriak ere ekoiztu ditu 2016an; esaterako, Itzultzale Berriak –Donostia 2016 Fundazioarekin batera–, Poeta Ibiltariak / Poetes Itinerants –Consello da Cultura Galega-rekin– edota Agirre Lehendakariaren inguruan Berlin, Reno eta New Yorken burutu ziren kongresu akademiko eta ekitaldiak –W. A. Douglass Center for Basque Studies, Agirre Lehendakaria Center, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia eta Mikel Laboa Katedra (UPV/EHU) lankide–.

2016. urtea Aquitaine.eus egitasmoaren hasieraren lekuko ere izan da. Etxepare Institutoak, Euskal Kultur Erakundeak (EKE) eta Euskadi-Aquitaina Berria Euroeskualdeak abian jarri duten eta kudeatzen duten programa honek euskal kultura Akitania Berrian zabaltzea du helburu, eta hamaika jarduera antolatu ditu urtean zehar.

Gainera, Etxeparek, Wales Arts International-ek eta Britainiako Espectacle Vivant-ek Sound Waves egitasmo berria sortu eta garatu dute, Atlantikoko musiken sare berri bat eratzeko asmoz. Egitasmoa Creative Europe laguntzetara aurkeztu du Institutoak 2016an.

Unibertsitatearen alorrari dagokionez, Etxepare Euskal Institutoak euskara eta euskal kultura irakasten duten irakurletzen sarea mantendu du, munduko ospe handiko 34 unibertsitatetan (Europen, Amerikan eta Asian), nazioarteko eremuan euskal ikasketen presentzia bermatuz. Aipatzeko da irakurletza berri bat zabaldu dela Habanako Unibertsitatean, Kuban sekula izan den lehena. Gainera, Institutoak ordura arte zituen nazioarteko euskara eta euskal kultura katedrei hiru katedra berri gehitu zaizkio: 2016an bertan zabaldu den William A. Douglass Katedra, Massachusetts Armherst-eko Unibertsitatean (AEB), Eloise Garmendia Bieter katedra, Boiseko Estatu Unibertsitatean (AEB) eta Jean Haritschelhar katedra, Bordeaux-Montaigne Unibertsitatean (Frantzia).

continuidad de prácticamente todas las líneas de trabajo de años anteriores, como en el caso de las residencias artísticas para artistas vascos/as. Para ello se han suscrito convenios de colaboración, contratos de patrocinio y acuerdos de colaboración con diversas entidades y organizaciones locales para apoyar su trabajo en el exterior, y con instituciones y programaciones internacionales estratégicas, para garantizar la creación de “ventanas vascas” y la presencia de artistas vascos en sus programas.

Etxepare ha coproducido también nuevos programas culturales como Itzultzale Berriak (Nuevos traductores) –junto con la Fundación Donostia / San Sebastián 2016–, Poeta Ibiltariak / Poetes Itinerants –con el Consello da Cultura Galega– o los congresos académicos y actividades organizados en Berlín, Reno y New York alrededor de la figura del Lehendakari Agirre –junto con W.A. Douglass Center for Basque Studies, Agirre Lehendakaria Center, la Secretaría General de Acción Exterior del Gobierno Vasco, y la Cátedra Mikel Laboa (UPV/EHU)–.

2016 ha sido también testigo de la puesta en marcha de Aquitaine.eus, proyecto para la difusión de la cultura vasca en Nueva Aquitania, creado y gestionado por el Instituto Vasco Etxepare, Euskal Kultur Erakundea (Instituto Cultural Vasco) y la Eurorregión Euskadi-Nueva Aquitania. En el marco de este proyecto se han organizado numerosas actividades a lo largo del año.

Además, Etxepare ha impulsado y desarrollado, junto con Wales Arts International (Gales) y Espectacle Vivant (Bretaña) el proyecto Sound Waves, una iniciativa para la creación de una nueva red de músicas atlánticas que ha sido presentado en 2016 a la convocatoria de ayudas Creative Europe.

En el ámbito universitario el Instituto Vasco Etxepare ha mantenido su red de lectorados de lengua y cultura vasca en 34 universidades de prestigio de todo el mundo (Europa, América y Asia), mediante la cual garantiza la presencia de los estudios vascos en un marco internacional. Es destacable que se ha abierto un nuevo lectorado en la Universidad de La Habana, el primero existente en Cuba. Además, a las seis cátedras de lengua y cultura vasca existentes hasta la fecha se ha sumado en 2016 la creación y puesta en marcha de la Cátedra William A. Douglass en la Universidad de Massachusetts Armherst (EEUU), así como la creación de la Cátedra Eloise Garmendia Bieter en la Universidad Estatal de Boise (EEUU) y de la Cátedra Jean Haritschelhar en la Universidad de Bordeaux-Montaigne (Francia).

Aurkibidea

Índice

01	Etxepare Euskal Institutua Instituto Vasco Etxepare	08
02	Proiektu estrategikoak Proyectos estratégicos	09
03	Literatura eta itzulpenak Literatura y traducción	10
04	Arte eszenikoak Artes escénicas	20
05	Zinea eta ikus-entzunezkoak Cine y audiovisuales	27
06	Musika Música	36
07	Arte plastikoak eta ikusizko arteak Artes plásticas y visuales	47
08	Hizkuntza eta unibertsitateak Lengua y universidades	54
09	Komunikazioa Comunicación	74
10	Finantza txostena Informe financiero	78
11	Gobernantza Gobernanza	80

01

Etxepare Euskal Institutua Instituto Vasco Etxepare

1545ean Bernart Etxeparek *Linguae Vasconum Primitae* izenburuko liburua idatzi zuen, euskaraz idatzi den lehenbizikoa, gure hizkuntza mundura zabaltzeko asmoz. Desira hori betetzeko Eusko Jaurlaritzak Etxepare Euskal Institutua jarri zuen martxan 2010. urtean.

Hizkuntzak zabalik dauden leihoak dira, unibertsitarioen berezko ikuspegia eskaintzen dutenak. Eta kultura, ezinbesteko tresna herri baten izana ezagutarazteko. Egungo ingurune eleanitz eta globalizatuan euskarak eta euskal kulturak kanpora ere egin behar dute salto eta merezi duten mailan kokatu, mundu mailan.

Euskara eta euskal kultura mundura hedatzeko konpromisoari helduz, Etxepare Euskal Institutua euskal kultura diplomaziaren burua da. Euskararen eta euskal kulturaren inguruko ezagutza eta ikerketa nazioartean bultzatzea helburu duten programak lantzen ditu, euskal sortzaileen eta haien lanen nazioartekotzea sustatzen du eta beste hizkuntza eta komunitateekin elkarlanean sortzeari bide ematen dio.

En 1545 Bernart Etxepare escribió la obra *Linguae Vasconum Primitiae*, el primer libro en lengua vasca, con el objeto de dar a conocer el euskera. Con el afán de cumplir con ese deseo, el Gobierno Vasco puso en marcha en 2010 el Instituto Vasco Etxepare.

Las lenguas son ventanas abiertas, capaces de ofrecer una perspectiva propia del universo. Y la cultura, una herramienta imprescindible para dar a conocer la identidad de nuestro pueblo. En el actual marco multilingüe y global, el euskera y la cultura vasca deben impulsarse al exterior y situarse en el nivel internacional que se merecen.

Fiel al compromiso de impulsar en el mundo el euskera y la cultura vasca, el Instituto Vasco Etxepare lidera la diplomacia cultural del País Vasco, desarrolla programas para el conocimiento y la investigación de la lengua y la cultura vasca, fomenta la internacionalización de las y los artistas y creadores vascos y promueve espacios de interacción con otras lenguas y comunidades.

02

Proiektu estrategikoak Proyectos estratégicos

Etxepare Euskal Institutua, euskal kulturaren ordezkari institucional gisa, nazioarteko hainbat saretaiko kide da eta proiektu eta egitasmo aldeanitzunak sustatzen ditu beste erakunde batzuekin elkarlanean.

Egun EUNICeko (Europar Batasuneko kultura instituto nazionalen sarea) kide elkartua da, zeinak Europar Batasuneko 28 herrialde kideetako erakundeak batzen dituen, aniztasuna eta kultura arteko elkarritzeta bultzatzeko helburuarekin. Halaber, EUNICek politika publikoetan eta kanpo harremanetan, bai Europa mailan, bati nazioartean, kulturaren paper indartsuago baten alde egiten du lan. Sare honetako kide bezala, Etxeparek kultura eta gizartea lotzen dituzten proiektu transnacionaletan parte hartzen du, baita Europako kultura kooperaziorako politiken definizio eta aktibazioan ere.

Bestalde, Etxepare Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdearen baitan gauzatzen den Aquitaine.eus proiektuaren sustatzaile ere bada. Euskal Kultur Erakundearekin (EKE) batera kudeatzen duen egitasmo honen helburua sortzaile eta eragileen arteko mugaz gaindiko harremanak eta kooperazioa bultzatzea da, Akitania Berrian Ipar eta Hego Euskal Herriko sortzaileei ikusgaitasuna emateko.

Azkenik, Institutuak Sound Waves egitasmoaren diseinuan parte hartu du Wales Arts International (Gales) eta Espectacle Vivant (Bretaña) erakundeekin batera. Proiektu hau Creative Europe Europar Batasuneko dirulagunza deialdira aurkeztu da eta etorkizunera begira beste kultura batzuk batzea aurreikusten du. Kultura sare berritzaile honek Atlantikoko hizkuntza eta musikentzat nazioarteko joan-etorriko sistema bat sortzea du helburu, kultura horien elkar ezagutza eta hedapena sustatu, eta musikarientzat aukera profesional berriak irekiko dituzten harreman sendoak eraikitzeo. Horrekin batera, mugaz gaindiko lan eredu berritzaile bat landuko da.

El Instituto Vasco Etxepare, como representante institucional de la cultura vasca, es miembro de varias redes internacionales y promueve proyectos e iniciativas culturales multilaterales en colaboración con otras entidades y organismos.

Actualmente, es miembro asociado de EUNIC (red de institutos nacionales de la cultura de la Unión Europea), organización que agrupa a entidades de los 28 países miembros de la Unión Europea con el fin de promover la diversidad y el diálogo cultural. EUNIC aboga, asimismo, por un papel más fuerte de la cultura en las políticas públicas y en las relaciones exteriores, tanto a nivel europeo como internacional. Como integrante de esta red, Etxepare participa en proyectos transnacionales que conectan cultura y sociedad y participa activamente en la definición y aplicación de la política de cooperación cultural europea.

Etxepare es, además, impulsor del proyecto Aquitaine.eus en el marco de la Eurorregión Nueva Aquitania-Euskadi. Esta iniciativa que lidera junto con Euskal Kultur Erakunde (Instituto Cultural Vasco) tiene como fin fomentar las relaciones y la cooperación transfronteriza entre creadores y agentes culturales de Nueva Aquitania y Euskadi para dar visibilidad a artistas –tanto de Iparralde como de Hegoalde– en esta región francesa.

Por último, el Instituto ha participado en el diseño del proyecto Sound Waves, junto con Wales Arts International (Gales) y Espectacle Vivant (Bretaña), presentado en 2016 a la convocatoria europea de ayudas Creative Europe. Esta innovadora red cultural, que tiene prevista la incorporación posterior de otras culturas atlánticas, busca crear un sistema internacional de ida y vuelta para las músicas y lenguas del Atlántico, con el fin de aumentar el conocimiento mutuo y la difusión, fomentar relaciones duraderas que conduzcan a nuevas oportunidades profesionales para los músicos y experimentar un nuevo modelo de trabajo transfronterizo.

03

Literatura eta itzulpenak Literatura y traducción



Euskal literatura sorkuntza ezagutxera emateko Etxepare Euskal Institutuak euskal sortzaile eta lanen zabalkundea sustatzen du, eta euskal idazleen presentzia kudeatzen du nazioarteko azoka eta jaialdi garrantzitsuenetako programa ofizialetan. Era berean, Institutuak euskal erakundeak babesten ditu nazioartean euskal literaturaren ordezkaritza lanak egiten dituztenean eta nazioarteko erakundeekin harremanak estutzen ditu elkartruke programak sustatzeko. Beste lan-ildo nagusia itzulpenak sustatzea da. Horretarako diru-laguntzak kudeatzen ditu eta itzulpen sari bat bultzatzen du. Halaber, 2016. urtean, atzerriko profesionales euskaratik abiatuta itzulpenak egiteko gaitza helburu duen programa kudeatu du.

Con el fin de divulgar la creación literaria vasca, el Instituto Vasco Etxepare fomenta la difusión de obras y autores y gestiona la presencia de escritores/as vascos/as en los programas oficiales de las ferias y festivales internacionales más relevantes. También apoya a entidades vascas en su labor de representación de la literatura vasca en el exterior y estrecha lazos con entidades internacionales para el fomento de proyectos de intercambio. Otra línea de trabajo relevante es el apoyo a la traducción literaria, que se realiza a través de ayudas y un premio de traducción. Además, en 2016 el Instituto ha gestionado un programa específico que capacita a profesionales extranjeros para traducir desde el euskera.

Literatura lanen itzulpenak sustatzea Fomento de la traducción de obras literarias

Itzulpenak sustatzearen helburua da euskal literaturak nazioartera salto egin dezan baliabideak eskaintza. Horretarako itzulpenak zubi dira. Itzulpenik gabe nekez izango dute nazioarteko hedapena euskal idazleek eta hauen lanek.

El fomento de la traducción tiene como fin ofrecer los medios para que la literatura en euskera pueda dar el salto a la escena internacional. Para ello la traducción es un puente. Sin traducciones es imposible que los escritores/as vascos/as y sus obras tengan una difusión internacional.

Literatura lanen itzulpenak egiteko diru-laguntzak


Etxeparek jatorriz euskaraz idatzitako lanen itzulpenak diruz laguntzen ditu, baita gaztelaniaz idatzitako EAEko idazleen lanenak ere. 2016. urtean 39.000 €ko aurrekontua izan du horretarako eta 17 diru-laguntza eman ditu. Horietatik 15 euskaraz idatzitako liburuentzat izan dira eta bi gaztelaniaz sortutako lanentzat.

Subvenciones para la traducción de obras literarias

Etxepare subvenciona la traducción de obras originalmente escritas en euskera y obras en castellano escritas por autores de la CAV a otras lenguas. En 2016 ha contado para ello con una dotación presupuestaria de 39.000 € y se han otorgado un total de 17 subvenciones. 15 ayudas han sido otorgadas a libros escritos originalmente en euskera y dos para obras creadas en castellano.

	2016	2015	2014	2013	2012
Eskatutako diru-laguntzak Ayudas solicitadas	29	31	28	21	42
Eemandako diru-laguntzak Ayudas otorgadas	17	18	16	17	24
Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	70.594 €	111.818,91 €	64.015,33 €	62.215,26 €	91.265,49 €
Emandako zenbatekoa Importe otorgado	39.000 €	39.000 €	35.974 €	39.000 €	44.000 €
Aurrekontua Presupuesto	39.000 €	39.000 €	39.000 €	39.000 €	47.000 €

Itzulpenen hizkuntzak Idiomas de las traducciones



Itzultzaile Berriak programa

Donostia 2016 Europako Kultur Hiruburuarekin eta EIZI Erekin (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretleen Elkarte) elkarlanean gauzatutako egitasmo honen helburua euskarazko itzultzaileen prestakuntza sustatzea izan da, Europan euskaraz idatzitako lanen hedapena laguntzeko. Deialdi publiko baten bidez lau itzultzaile aukeratu ziren: Laura Liubinavivc (Lituania), Mariya Petrova (Bulgaria), Barbara Pregelj (Eslovenia) eta Katarzyna Sosnowska (Polonia). Euskal Herriko barnetegi batean sei hilabeteko egonaldia egin ostean literatura lanen aukeraketa bat itzuliko dute norberaren hizkuntzara eta gero argitaratu egingo dira. Bernardo Atxagaren *Xola eta Ameriketako izeba* eslovenierara itzuli eta argitaratu egin da. Gainerako lanak 2017. urtean zehar gauzatuko dira. Era beran, beste lau itzultzailek (Matylda Figlerowicz –Polonia–, Karina Mishchenkova –Errusia–, Lenka Niznanska –Txekiar Errepublika– eta Merilin Kotta –Estonia–) hilabeteko egonaldia egin zuten Euskal Herrian euskara ikasteko.

Programa Itzultzaile Berriak

Este proyecto llevado a cabo en colaboración con Donostia / San Sebastián 2016 Capital Europea de la Cultura y EIZIE (Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes en Lengua Vasca) ha tenido como fin la formación de traductores en euskera para contribuir a la difusión en Europa de obras literarias escritas originalmente en esta lengua. Mediante convocatoria pública se seleccionaron cuatro traductoras (Laura Liubinavivc –Lituania–, Mariya Petrova –Bulgaria–, Barbara Pregelj –Eslovenia– y Katarzyna Sosnowska –Polonia–), que tras realizar una estancia de seis meses en un *barnetegi* en el País Vasco para aprender euskera, traducirán a sus respectivos idiomas una selección de obras que posteriormente serán publicadas. *Xola eta Ameriketako izeba* (*Xola y la tía de América*), de Bernardo Atxaga, ha sido ya traducida y publicada en esloveno. El resto de trabajos verán la luz a lo largo del año 2017. Asimismo, otras cuatro traductoras (Matylda Figlerowicz –Polonia–, Karina Mishchenkova –Rusia–, Lenka Niznanska –República Checa– y Merilin Kotta –Estonia–) realizaron una estancia de un mes en el País Vasco para aprender euskera.

Etxepare – Laboral Kutxa Itzulpen saria



2015. urtean sortutako itzulpen sari honek euskaraz idatzitako literatura lanen itzulpenak sustatzea eta lan horien aitorpen publikoa bultzatzea ditu helburu. Sariaren irabazlea aukeratzerakoan itzulpenaren kalitatea eta argitaletxearen promozio plana hartzen dira aintzakotzat. Saritutako argitaletxe eta itzultzaileak 4.000 € jasotzen dituzte, eta 2.000 € gehiago saria jasotzera joateko edota liburuaren promoziorako. 2016. urteko irabazoleak Japoniako Hakusuisha argitaletxea eta Nami Kaneko itzultzailea izan dira Kirmen Uriberen *Mussche* eleberriaren itzulpenarekin.

Premio de Traducción Etxepare-Laboral Kutxa

Mussche eleberriaren japonierazko itzulpena izan da saritua 2016. urtean

La traducción al japonés de *Mussche* ha sido la premiada en 2016

El Premio de Traducción Etxepare – Laboral Kutxa, creado en 2015, tiene como fin fomentar la traducción y publicación de obras literarias escritas originalmente en euskera, así como su reconocimiento público. A la hora de otorgar el premio se valora la calidad de la traducción y el plan de promoción de la editorial. La editorial y traductor galardonados reciben un premio de 4.000 €, así como una ayuda de 2.000 € para asistir a la entrega del Premio y/o para la promoción del libro. Los ganadores del año 2016 han sido la editorial japonesa Hakusuisha y la traductora Nami Kaneko, por la traducción al japonés de la novela *Mussche*, de Kirmen Uribe.

Sortzaileen eta lanen zabalkundea sustatzea Fomento de la difusión de autores y obras

Etxeparek euskal sortzaileen eta lanen presentzia sustatzen du mundu osoko azoka eta jaialdietan euskal literaturari ikusgaitasuna emateko helburuarekin.

Etxepare fomenta la presencia de autores y autoras vascos/as y sus obras en las programaciones de ferias y festivales de todo el mundo con el fin dar visibilidad a la literatura vasca.

Bidaia-poltsak

Etxeparek urtero bidaia-poltsak ematen dizkie euskal idazle, ilustratzaile, itzultzale eta editoreei, liburuen aurkezpen, hitzaldi edo antzeko ekintzen bidez nazioarteko ekitaldien parte har dezaten, betiere euskal kulturaren ordezkarri bezala. Aurten 14 diru-laguntza eman dira orotara, 6.762,22 €.

Bolsas de viaje

Etxepare otorga anualmente bolsas de viaje para que escritores/as, ilustradores/as y editores/as vascos/as puedan participar en eventos internacionales presentando libros, ofreciendo conferencias o actividades similares como representantes de la cultura vasca. Este año se han otorgado un total de 14 subvenciones por valor total de 6.762,22 €.

Eemandako
bidaia-poltsen % 31,7
literaturarako izan dira

El 31,7% de las
bolsas de viaje otorgadas
han sido para literatura



	Eskatutako diru-laguntzak Ayudas solicitadas	Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	Eemandako zenbatekoa Importe otorgado	Portzentaia Porcentaje	Aurrekontua Presupuesto
Literaturako bidaia-poltsak Bolsas de viaje literatura	14	6.762,22 €	6.457,36 €	%31,7	
Zineko bidaia-poltsak Bolsas de viaje cine	22	16.272,15 €	14.843,24 €	%68,3	
GUZTIRA TOTAL	36	23.034,37 €	21.300,06 €		25.000 €

Bidaia-poltsen bidez lagundutako joan-etorrien banaketa geografikoa

EUROPA	AMERIKA	GUZTIRA
13	3	16

* Jasotako eskaeretako bi desplazamendu bat baino gehiago egiteko izan dira. *Dos de las solicitudes recibidas fueron para realizar más de un desplazamiento.*

Distribución geográfica de los desplazamientos apoyados mediante bolsas de viaje



Argazkia/Foto: Donostia/San Sebastián 2016

Poeta ibiltariak

Hizkuntza gutxituetan egindako poesiaren sustapen eta elkartrukerako programa honen baitan poesia topaketak antolatu ditu Etxeparek, euskal poetak eta beste hizkuntza ez hegemoniko batean sortzen duten poetekin. Urtarrilaren 15ean poeta euskaldun eta katalanen poesia errezitaldia egin zen Donostian, 2015ean Institut Ramon Llull-ekin elkarlanean Bartzelonan egin zen topaketaren itzulera gisa. Rikardo Arregi, Iñigo Astiz, Itxaro Borda, Mireia Calafell, Jordi Juliá eta Jordi Llavinak parte hartu zuten. Halaber, Consello da Cultura Gallega-rekin elkarlanean bi topaketa antolatu ziren. Lehenengoa Santiago de Compostelan izan zen, ekainaren 16an, eta Leire Bilbao, Miren Agur Meabe, Felipe Juaristi, Manuel Rivas, Gonzalo Hermo, Dores Tembrás eta Anxo Angueirak hartu zuten parte. Sortzaile hauek berak urriaren 26an, Donostian, Etxepareraren egoitzan egin zen errezitaldian hartu zuten parte. Irakurritako poemak euskaraz eta katalanez, eta euskaraz eta gallegoz egindako argitalpen digital banatan jaso dira.

Poeta ibiltariak

Poeta Ibiltariak es un programa de Etxepare para la promoción e intercambio de poesía en lenguas minoritarias a través del cual ha organizado encuentros poéticos encuentros poéticos entre autores/as vascos/as y autores/as en otra lengua no hegemónica. El 15 de enero tuvo lugar un recital de poetas catalanes y vascos en San Sebastián, como retorno al que tuvo lugar en 2015 en Barcelona en colaboración con el Institut Ramon Llull. Participaron Rikardo Arregi, Iñigo Astiz, Itxaro Borda, Mireia Calafell, Jordi Juliá y Jordi Llavina. Asimismo, en colaboración con el Consello da Cultura Gallega, se organizaron dos recitales en el que autores vascos y gallegos leyeron sus poemas en su lengua original. El primero tuvo lugar en Santiago de Compostela el 16 de junio y participaron Leire Bilbao, Miren Agur Meabe, Felipe Juaristi, Manuel Rivas, Gonzalo Hermo, Dores Tembrás y Anxo Angueira. Estos mismos poetas participaron en el segundo recital, que tuvo lugar en San Sebastián, en la sede de Etxepare, el 26 de octubre. Los poemas se han recogido en sendas publicaciones digitales en euskera y catalán y en euskera y gallego.

Azoka eta jaialdietan presentzia Presencia en ferias y festivales



Cork World Book Fest (Cork, Irlanda)

Apirlak 19 [Abril](#)

Itxaro Borda

Silesius - Wrocławska Nagroda Poetycka (Wrocław, Polonia)

Maiatzak 10 [Mayo](#)

Rikardo Arregi

Harkaitz Cano

Literature Festival Ruse 2016 (Ruse, Bulgaria)

Urriak 8 [Octubre](#)

Harkaitz Cano

Rencontres Littéraires Espagnoles (Nantes, Francia)

Azaroak 3-7 [Noviembre](#)

Bernardo Atxaga eta Antonio Altarriba

Hay Festival (Arequipa, Perú)

Abenduak 10 [Diciembre](#)

Kirmen Uribe

Thessaloniki International Book Fair (TIBF) (Tesalonika, Grecia)

Maiatzak 15 [Mayo](#)

Katixa Agirre

Feria Internacional del Libro de Guadalajara (FIL) (Guadalajara, México)

Azaroak 27-29 [Noviembre](#)

Iban Zaldua

Universidad Nacional Autónoma de México (UNAM) (Mexiko Hiria, México)

Abenduak 1 [Diciembre](#)

Iban Zaldua

Bokmässan Göteborg (Göteborg, Suecia)

Irailak 22-25 [Septiembre](#)

Karmele Jaio

Miami Book Fair (Miami, AEB)

Azaroak 18-23 [Noviembre](#)

Miren Agur Meabe

Halaber, Etxepare Genevako Liburu Azokan eta Londresko Liburu Azokan ere izan da nazioarteko editoreekin bilerak egiteko euskal idazleen lanak atzerriko argitaletxeetan argitaratzea errazteko helburuarekin. Era berean, Institutuak presentzia izan du Frankfurtekoko Liburu Azokan eta Bolognako Haur eta Gazte Liburuen Azokan sektoreko elkarteekin batera.

Asimismo, Etxepare ha asistido al Salón del Libro de Ginebra y a la Feria del Libro de Londres donde ha mantenido reuniones con editores internacionales con el fin de facilitar la publicación de obras de autores vascos en editoriales extranjeras. El Instituto también ha tenido presencia en la Feria del Libro de Frankfurt y en la Feria del Libro Infantil de Bolonia en colaboración con las asociaciones del sector.

Nazioarteko azoka eta jaialdietan izandako presentziaren banaketa geografikoa

EUROPA	AMERIKA	GUZTIRA
10	4	14

Distribución de la presencia en ferias y festivales internacionales

14 joan-etorri
egin dira 12
herrialdetara

Se han realizado 14
desplazamientos a
12 países diferentes



Best European Fiction

Etxeparek bultzatuta, *Best European Fiction* antologian Karmele Jaioen bi lan argitaratu dira. Antologia honek ingelesera itzulitako europar idazleen lanak jasotzen ditu nazioarteko publikoari egile berriak ezagutzera emateko. Argitaratutako lanak *Ispiluarena* (The Mirror) eta *Oihua* (The Scream) izan dira.

Best European Fiction

Etxepare ha impulsado la publicación de dos obras de Karmele Jaio en *Best European Fiction*, antología que recopila trabajos traducidos al inglés de escritores europeos para dar a conocer nuevos autores al público internacional. Las obras publicadas son *Ispiluarena* (The Mirror) y *Oihua* (The Scream).

Nazioarteko foroetan presentzia

Etxepare Institituak Euskal PEN Klubaren ondorengo ekintzak lagundu ditu euskararen eremu geografikotik kanpo euskal literatura ezagutzen emateko:

Translation and Lingüistic Rights Committee (Johannesburg, Hegoafrika)

Martxoak 10-12

PEN International Congress (Ourense)

Irailak 26 – Urriak 2

Basque Writing 13 eta 14

Euskal PEN Klubak euskaraz eta ingelesaz argitaratzen duen Basque Writing euskara eta euskal literatura aldizkariaren 13. eta 14. zenbakiak lagundu ditu.

Presencia en foros internacionales

El Instituto Vasco Etxepare ha subvencionado las siguientes actividades de Euskal PEN Kluba (Basque PEN) con el fin de dar a conocer la literatura vasca fuera del ámbito lingüístico:

Translation and Lingüistic Rights Committee (Johannesburgo, Sudáfrica)

Marzo 10-12

PEN International Congress (Ourense)

Septiembre 26 – Octubre 2

Basque Writing 13 y 14

Publicación de los números 13 y 14 de Basque Writing, revista especializada en lengua y literatura vasca que edita en euskera e inglés Euskal PEN Kluba (Basque PEN).

Europar proiektuak Proyectos europeos

EUNICen (Europar Batasuneko kultura institutu nazionalen sarea) Bruselako klusterreko kide elkartu bezala Etxeparek hainbat proiektutan parte hartu du Europako beste herrialde batzuetako kultura institutuekin elkarlanean.

Fête de la BD / Strip Feest ★ (Brusela, Belgika)

Irailak 2-4

Euskal komikia bigarren aldiz izan da Fête de la BD / Strip Feest Bruselako komiki jaialdian, nazioarte mailan dagoen garrantzitsuenetakooa, EUNICeko beste kide batzuekin batera. Euskal komikiari zuzendutako gune propio batez gain, Gregorio Muro komikigile eta editorea, eta Adur Larrea, *Gabriel Aresti BioGrafiko* lanaren sortzailea, izan ziren bertan.

Transpoesie ★

EUNIC Brussels-ek Belgikako hiriburuan antolatzen duen Transpoesie jaialdiaren testuinguruan Transpoesie.eu Europan eginko poesia ezagutarazteko plataforma Bernardo Atxagaren olerkiak igo dira euskaraz, gaztelaniaz eta ingelessez.

Como miembro asociado del clúster de Bruselas de la red EUNIC (red de institutos nacionales de la cultura de la Unión Europea) Etxepare ha participado en varios proyectos en colaboración con otros institutos nacionales de la cultura pertenecientes a la red.

Fête de la BD / Strip Feest ★ (Bruselas, Bélgica)

Septiembre 2-4

El cómic vasco ha participado por segunda vez en el Festival del Cómics de Bruselas Fête de la BD / Strip Feest, una de las más importantes del panorama internacional, en asociación con otros miembros de EUNIC. Además de contar un espacio específico dedicado al cómic vasco, asistieron al festival Gregorio Muro, autor de cómics y editor, y Adur Larrea, creador de *Gabriel Aresti BioGrafiko*.

Transpoesie ★

En el marco del festival Transpoesie que EUNIC Brussels organiza anualmente en la capital belga se han incorporado a la plataforma de divulgación de la poesía europea Tranpoesie.eu poemas del escritor Bernardo Atxaga en euskera, castellano e inglés.



EUNIC sarearen baitan gauzatutako ekintzak. Actividades desarrolladas en el marco de EUNIC.

04

Arte eszenikoak Artes escénicas



Etxepare Euskal Institutuak Euskal Herriko arte eszenikoek munduan duten ikusgaitasuna sendotzea bilatzen du. Helburu horrekin Euskal Herriko dantza eta antzerki ekoizpenen nazioarteko presentzia bultzatzen du diru-laguntzen bidez. Euskal artisten zabalkundea errazteko atzerriko erakundeekin elkarlanean ere aritzen da, eta programazio garrantzitsuetan Euskal Leihoa sortzen ditu. Horrez gain, katalogoak egiten laguntzen du, euskal konpainiek Estatuko eta nazioarteko azoketan parte hartzeko diru-laguntzak ematen ditu eta nazioarteko azoketan euskal presentziaren arduraduna da.

El Instituto Vasco Etxepare busca reforzar la visibilidad de las artes escénicas vascas en el mundo. Con ese fin apoya la presencia internacional de las producciones vascas de danza y teatro por medio de ayudas, la colaboración con entidades extranjeras para facilitar la circulación de artistas vascos/as y la creación de Ventanas Vascas en programaciones destacadas. El Instituto colabora, además, en la elaboración de catálogos, subvenciona la participación de compañías vascas en ferias profesionales estatales e internacionales y es responsable de la presencia vasca en ferias internacionales.

Arte eszenikoen erakustaldiak sustatzea Fomento de la exhibición de las artes escénicas

Etxepareran helburuetako bat euskararen eremu geografikotik a Euskal Herrian eginiko arte eszenikoetako proposamenen erakustaldiak bultzatzea da. Asmo horrekin jaialdi eta zentro ezberdinekin lankidetza hitzarmenak sinatu dira euren programazioetan euskal sorkuntzentzat espazioak bermatu ditzaten. Era beran, euskal konpainiek diru-laguntzak jaso dituzte nazioarteko birak eta antzerki denboraldiak egiteko.

Uno de los objetivos del Instituto es apoyar la exhibición, fuera del ámbito geográfico del euskera, de las propuestas escénicas creadas en el País Vasco. Con ese fin, se han establecido diversos acuerdos de colaboración con festivales y centros para garantizar espacios dedicados a creaciones vascas en sus programaciones y se han otorgado ayudas a compañías vascas para la realización de giras internacionales y temporadas de teatro.

Antzoki eta jaialdietan presentzia

Kultur eragile ezberdiniek sinatutako akordioen bidez, 2016. urtean euskal sorkuntzak ondorengo jaialdi eta zentroetan ikusi ahal izan dira:

Galicia Escena PRO (Santiago de Compostela)

Ekainak 6-9

Kulunka Teatroa, Gorakada eta Kukai Dantza Taldeak arte eszenikoen azoka honetan parte hartu zuten. Duela gutxi ekoitztako ikuskizunen aukeraketa eta bestelako jarduera paraleloak eskaintzen ditu Galiziako ekitaldi honek.

Fest'Arts (Libourne, Frantzia) ★

Abuztuak 4-6

2012. urtetik, euskal dantza eta antzerki konpainiek kaleko antzerkiari zuzendutako jaialdi honetan parte hartzeko aukera dute "Euskadi à Libourne" programaren bidez. Programa honek euskal artistei Frantziako merkatuko atea irekitzea du helburu eta iaztik Aquitaine.eus egitasmoaren baitan kokatzen da.

2016. urtean hiru euskal konpainiak hartu dute parte: Ertza *Ikuslearen showa* lanarekin, Deabru Beltzak *Su a feu* ikuskizunarekin; eta Zurrunkateatro *Kalekolore* sorkuntzarekin.

Hiru euskal konpainien emanaldiez gain, euskal artistak Frantziar programazaleei aurkezteko zein mugaz gaindiko euskal-akitaniar kultur erakunde eta sortzaileen arteko elkarlan aukerak aztertzeko topaketa bat burutu zen.

Centro Dramático Nacional (Madril)

Urriak 7 – Azaroak 27

Alfonso Sastreren *Escuadra Hacia la Muerte* antzezlana Madrilen eskaini zen Etxepare Euskal Instituaren laguntzarekin. Hirugarren Mundu Gerra hipotetiko batean kokatzen da antzezlana. Bertan, bost gizonez osaturiko eskuadroa surrealdeko postu batera bidaltzen dute erretagoardiari etsaiaren erasoen berri emateko.

Halaber, urriaren 17an 'La escritura desatada: El lugar de Alfonso Sastre en la historia de la literatura', mahai-ingurua ospatu zen Paco Azorín, Javier Villán, Andrés Sorel eta Xabi Puertaren parte-hartzearekin.

Presencia en teatros y festivales

Gracias a los acuerdos alcanzados con diversos agentes culturales, en el año 2016 se han podido ver creaciones vascas en los siguientes festivales y centros.

Galicia Escena PRO (Santiago de Compostela)

Junio 6-9

Kulunka Teatroa, Gorakada y Kukai Dantza Taldea, participaron en esta feria de artes escénicas que, mediante una selección de espectáculos de reciente producción y actividades paralelas, le toma el pulso a la actualidad del sector en Galicia.

Fest'Arts (Libourne, Francia) ★

Agosto 4-6

Desde 2012, compañías de danza y teatro vascas tienen la oportunidad de participar en este festival dedicado al teatro de calle mediante el programa "Euskadi à Libourne" que, desde el año pasado, se sitúa en el marco del proyecto Aquitaine.eus y abre las puertas del mercado francés a artistas vascos.

En 2016 han participado tres compañías vascas: Ertza, con *El show del espectador*; Deabru Beltzak con *Su a feu*; y Zurrunkateatro con *Kalekolore*.

Asimismo, tuvo lugar un encuentro para presentar artistas vascos a programadores franceses y explorar posibilidades de colaboración transfronteriza entre entidades culturales y creadores de Euskadi y Nueva Aquitania.

Centro Dramático Nacional (Madrid)

Octubre 7 – Noviembre 27

La obra teatral *Escuadra Hacia la Muerte*, de Alfonso Sastre, se representó en el Centro Dramático Nacional, en Madrid, con el apoyo del Instituto Vasco Etxepare. La obra se desarrolla en una hipotética Tercera Guerra Mundial, en la que un escuadrón de cinco hombres es enviado a un puesto de avanzadilla para informar de los ataques enemigos a la retaguardia.

Asimismo, el 17 de octubre se celebró la mesa redonda 'La escritura desatada: El lugar de Alfonso Sastre en la historia de la literatura', con la participación Paco Azorín, Javier Villán, Andrés Sorel y Xabi Puerta.



Antzerki birak eta denboraldiak egiteko diru-laguntzak

Etxeparek urtero diru-laguntzak ematen ditu euskal konpainiek euskararen eremu geografikotik kanpo antzerki birak eta denboraldiak egin ditzaten.

2016. urtean 37 eskaera jaso dira eta horietatik 36 onartu dira. Guztira 130.746 € eman dira.

Subvenciones para la realización de giras y temporadas de teatro

Etxepare otorga anualmente ayudas para que compañías de teatro vascas puedan realizar giras y temporadas teatrales fuera del ámbito geográfico del euskera.

En el año 2016 se han recibido 37 solicitudes, de las cuales 36 han sido otorgadas. En total, se han concedido 130.746 €.

	2016	2015	2014	2013	2012
Eskatutako diru-laguntzak Ayudas solicitadas	37	51	40	40	52
Emandako diru-laguntzak Ayudas otorgadas	36	51	39	35	39
Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	158.396 €	202.700 €	168.324 €	170.755 €	187.420 €
Emandako zenbatekoa Importe otorgado	130.746 €	138.000 €	136.000 €	142.000 €	154.484 €
Aurrekontua Presupuesto	138.000 €	138.000 €	136.000 €	142.000 €	154.484 €

Diruz lagundutako antzerki bira eta denboraldien banaketa geografikoa

Distribución geográfica de giras y temporadas de teatro subvencionadas

EUROPA	34	AMERIKA	9	GUZTIRA	43
Espainiar estatua	13	Argentina	3		
Alemania	5	Uruguay	1		
Frantzia	4	Panama	1		
Erresuma Batua	2	Mexiko	1		
Italia	2	Txile	1		
Portugal	2	Brasil	1		
Polonia	1	Ekuador	1		
Bulgaria	1				
Errumania	1				
Herbehereak	1				
Txekiar Errepublika	1				
Belgika	1				

* Jasotako eskaeretako batzuk birak herrialde bat baina gehiagotan egiteko izan dira. Algunas de las solicitudes han sido para realizar giras en más de un país.

Dantza birak egiteko diru-laguntzak

Etxeparek urtero diru-laguntzak ematen ditu euskal dantza konpainiek birak egiteko eta nazioarteko dantza programazioetan parte hartzeko.

2016. urtean dantza birak egiteko 16 eskaera jaso dira eta guztiak onartu dira. Denera 40.253 € eman dira.

Subvenciones para la realización de giras de danza

Etxepare otorga anualmente ayudas para que compañías de danza vascas puedan realizar giras y participar en programaciones de danza internacionales.

En el año 2016 se han recibido 16 solicitudes para la realización de giras de danza, todas ellas han sido otorgadas. En total, se han concedido 40.253 €.

	2016	2015	2014	2013	2012
Eskatutako diru-laguntzak Ayudas solicitadas	16	14	11	10	8
Emandako diru-laguntzak Ayudas otorgadas	16	13	9	9	5
Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	108.693 €	71.314 €	77.912 €	59.434 €	50.000 €
Emandako zenbatekoa Importe otorgado	40.253 €	35.996 €	29.000 €	31.764 €	25.188 €
Aurrekontua Presupuesto	33.000 €	29.000 €	29.000 €	29.000 €	30.000 €

Diruz lagundutako dantza biren banaketa geografikoa

EUROPA	18	AMERIKA	9	ASIA	4	GUZTIRA	35
Spainiar estatua	8	Mexiko	3	Hego Korea	3		
Frantzia	3	Brasil	1	Japonia	1		
Alemania	2	Argentina	1				
Italia	2	Panama	1				
Erresuma Batua	1	Costa Rica	1				
Suitza	1	Kuba	1				
Austria	1	Venezuela	1				

* Jasotako eskaeretako batzuk birak herrialde bat baina gehiagotan egiteko izan dira. [Algunas de las solicitudes han sido para realizar giras en más de un país.](#)

Distribución geográfica de giras de danza subvencionadas



Azoka profesionaletan parte hartzea sustatzea Fomento de la participación en ferias profesionales

Etxepare Euskal Institutuak arte eszenikoen sektoreak azoka profesionaletan parte hartza sustatzen du. Aurtent, lehen aldiz, stand-a antolatu du Internationale Kulturbörse Freiburg azokan, Alemaniako arte eszenikoen azoka handienean.

Halaber, Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta, sektorearen parte hartza bultzatu da Valladolideko TAC kale antzerki jaialdian eta Tarregako Fira de Teatre al Carrer azokan.

Bestalde, konpainiak beste azoka batzuetara joan ahal izateko diru-laguntza lerroa jartzen du Etxeparek sektorearen eskura.

El Instituto Vasco Etxepare fomenta la participación del sector en ferias profesionales. Este año ha organizado por primera vez un stand en la feria Internationale Kulturbörse Freiburg, principal mercado de artes escénicas de Alemania.

Además, en colaboración con el Gobierno Vasco se ha fomentado la participación del sector en el Festival de Teatro de Calle de Valladolid (TAC) y en la Fira de Teatre al Carrer de Tàrrega.

Por otra parte, Etxepare pone a disposición del sector una línea de ayudas para que las compañías interesadas puedan asistir a otras ferias profesionales.

Azoka profesionaletan parte hartzeko diru-laguntzak

2016. urtean 20 eskaera jaso dira arte eszenikoen alorreko azoka profesionaletan parte hartzeko eta guztiak izan dira onartuak. Orotara 15.000 € eman dira.

Subvenciones para la participación en ferias profesionales

En el año 2016 se han recibido 20 solicitudes para la participación en ferias profesionales de artes escénicas y todas ellas han sido otorgadas. En total, se han concedido 15.000 €.

	2016	2015	2014	2013	2012
Eskatutako diru-laguntzak Ayudas solicitadas	20	15	13	15	9
Emandako diru-laguntzak Ayudas otorgadas	20	15	13	14	9
Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	20.908 €	15.109 €	18.000 €	15.631 €	11.624 €
Emandako zenbatekoa Importe otorgado	15.000 €	15.109 €	18.000 €	15.631 €	11.624 €
Aurrekontua Presupuesto	10.000 €	10.000 €	10.000 €	10.000 €	10.000 €

Azoketara joateko babestutako joan-otorrien banaketa geografikoa

EUROPA	42	AMERIKA	1	GUZTIRA	43
Espainiar estatua	36	Kanada	1		
Alemania	4				
Frantzia	1				
Eslovenia	1				

* Jasotako eskaeretako batzuk birak herrialde bat baina gehiagotan egingo izan dira. *Algunas de las solicitudes recibidas han sido para participar en más de una feria.*

Azoken arabera emandako eskaera kopurua


- Feria Internacional de Teatro y Danza de Huesca (Huesca): 8
- FETEN (Gijon): 7
- Fira Tàrrega (Tàrrega): 5
- Mercartes (Valladolid): 4
- Internationale Kulturbörse Freiburg (Freiburg, Alemania): 3
- MADferia (Madrid): 3
- Festival de Teatro de Calle de Valladolid-TAC (Valladolid): 2
- La Mostra d'Igualada (Igualada): 2
- Feria de Teatro de Castilla y León (Ciudad Rodrigo): 1
- Festival TransAmériques (Montreal, Kanada): 1
- Internationale Tanzmesse (Düsseldorf, Alemania): 1
- Galicia Escena PRO (Santiago de Compostela): 1
- International Performing Arts Meeting (Barcelona): 1
- Fira Trapezi (Reus): 1
- Mostra de Teatre d'Alcoi (Alcoi): 1
- Fest'arts (Libourne, Frantzia): 1
- Ana Desetnica International Street Theatre Festival (Ljubljana, Eslovenia): 1

Distribución geográfica de los desplazamientos a ferias apoyados

43 joan-otorri
egin dira **5**
herrialdetara

Se han realizado **43**
desplazamientos a
5 países diferentes

Número de solicitudes otorgadas distribuidas por ferias



Beste jarduera batzuk Otras actividades

dFERIA (Donostia) ★

Martxoak 7-10

Lau antzezlan ikusi ahal izan ziren euskaraz, frantses eta ingeleseko goititueluekin, Akitania Berriko eta nazioarteko programatzaleei jatorrizko bertsioan ikusteko aukera emanaz:

-Jokoz kanko (Borobil Teatroa)

-Zergatik Jamil? (Tartean Teatroa)

-Oskara (Kukai Dantza Konpainia)

-Musua (Tanttaka Teatroa)

Ondorioz, Akitania Berriko programatzaleek euren antzokietan euskarazko bertsioan (frantsesezko goititueluekin) programatu ahal izan zituzten.

Ekitaldi honetan 450 artista baina gehiagok parte hartu zuten. Horien artean izan zen Borja Barrueta bateria jolea, Europako zenbait musikarik osaturiko European Jazz Unit 2016 taldeko kide bezala. Etxeparek EUNICeko kide elkartu bezala parte hartu duen egitasmoetako bat da hau.

The Brussels Jazz Marathon ★

Mayo 20-22

Entre los más de 450 artistas que participaron en este evento estuvo el batería vasco Borja Barrueta como parte de la banda European Jazz Unit 2016, una banda formada por destacados músicos europeos. Se trata de una de las iniciativas del Instituto en su calidad de miembro de EUNIC.

Argitalpenak Publicaciones

2016. urtean Womex azokarako folk eta munduko musiken alorreko euskal taldeen hautaketa bat biltzen duen Basque Music katalogoa argitaratu da.


En el año 2016 se ha publicado para la feria Womex el catálogo Basque Music que presenta una selección de artistas vascos del ámbito de la música folk y world music.

07

Arte plastikoak eta ikusizko arteak [Artes plásticas y visuales](#)

Etxepare Euskal Institutuak euskal artisten lanen zabalkundea egiten du nazioartean, arte garaikideko zentroetan eta erreferentziazko ekitaldietan parte hartzea bereziki sustatuz. Halaber, euskal artisten sorkuntza eta zabalkunderako interesgarriak diren hartzemanak eta egonaldi artistikoak sustatzen ditu.

El Instituto Vasco Etxepare promueve la difusión, a nivel internacional, de las obras de artistas vascos, garantizando especialmente la presencia y la participación en centros de arte contemporáneo y en eventos de referencia. Asimismo, también fomenta residencias artísticas e intercambios de colaboración interesantes para la creación vasca.



Artista, komisario eta erakusketen mugikortasuna sustatzea Fomento de la circulación de artistas, comisarios y exposiciones

Ikusizko arteak eta arte plastikoak sustatzeko diru-laguntzak

Etxepare Euskal Institutoak nazioartean euskal artearen ikusgaitasuna sustatzeko duen tresna garrantzitsuenetako da artista eta komisarioen mugikortasuneko diru-laguntza deialdia. Euskal artea nazioarteratzeko funtsezkoak diren diru-laguntza hauek ikusizko arteen eta arte plastikoen alorrean erakusketa proiektuak babesteko izaten dira.

2016. urtean 61 proiektu aurkeztu dira eta horietatik 42k jaso dute diru-laguntza.

Subvenciones para la promoción de las artes visuales y plásticas

Una de las herramientas principales del Instituto Vasco Etxepare para fomentar la presencia del arte vasco a nivel internacional es la convocatoria pública de ayudas para desplazamientos de artistas y comisarios. Estas subvenciones son básicas para consolidar los mecanismos de apoyo a la internacionalización del arte vasco y se convocan para dar ayuda a proyectos expositivos en el ámbito de las artes visuales y plásticas.

En 2016 se han presentado un total de 61 proyectos, de los cuales 42 han obtenido subvención.

	2016	2015	2014	2013	2012
Eskatutako diru-laguntzak Ayudas solicitadas	61	53	59	38	41
Emandako diru-laguntzak Ayudas otorgadas	42	47	39	22	35
Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	110.588 €	120.000 €	106.125 €	107.900 €	100.453 €
Emandako zenbatekoa Importe otorgado	53.000 €	56.000 €	53.000 €	55.000 €	66.000 €
Aurrekontua Presupuesto	53.000 €	53.000 €	53.000 €	55.000 €	50.000 €



Diru-laguntza bidez babestutako proiektuen banaketa geografikoa

EUROPA	40	Espainiar estatua: 9 Frantzia: 5 Belgika: 4 Austria: 4 Herbehereak: 3 Erresuma Batua: 2 Italia: 2 Islandia: 2 Alemania: 1 Portugal: 1 Eslovenia: 1 Finlandia: 1 Suitza: 1 Errusia: 1 Turkia: 1
AMERIKA	9	AEB: 3 Mexiko: 2 Ekuador: 1 Argentina: 1 Brasil: 1 Kanada: 1
ASIA	1	Georgia: 1
GUZTIRA	48	

* Jasotako eskaeretak bost proiektuak herrialde bat baino gehiagotan garatzeko izan dira. *Cinco de las solicitudes recibidas han sido para desarrollar proyectos en más de un país.*

Distribución geográfica de los proyectos subvencionados

42 proiektu
babestu dira **22**
herrialdetan

Se han apoyado **42**
proyectos en
22 países diferentes

Beste proposamen artistikoen sustapena

Lankidetza hitzarmenen bidez Etxeparek prestigioa eta nazioarteko inpaktua duten ondorengo proposamenak babestu ditu:

PIGS erakusketa

Etxeparek PIGS erakusketa Europako zenbait hiritan ikus dadin lagundu du. Artium, Galería Municipal de Porto (Portugal), Tesalonikako Arte Garaikidearen Zentroa (Grezia) eta Es Baluard (Palma Mallorcakoa) arte guneeak ekoiztutako erakusketa honek Portugal, Italia, Grezia, eta Espainiar estatuko hainbat artisten lana biltzen du, Karmelo Bermejo eta Juan Carlos Meana euskal artistena tartean. Blanca de la Torre izan da komisarioa.

Promoción de otras propuestas artísticas

Etxepare promovió, mediante la firma de convenios de colaboración, las siguientes propuestas de prestigio e impacto internacional.

Exposición PIGS

Etxepare colaboró en la itinerancia PIGS, una exposición internacional coproducida por Artium (Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo), la Galería Municipal de Porto (Portugal), el Centro de Arte Contemporáneo de Tesalónica (Grecia) y Es Baluard (Palma de Mallorca). Comisariada por Blanca de la Torre, la muestra reunía una amplia representación de artistas de Portugal, Italia, Grecia y España, incluidos los vascos Karmelo Bermejo y Juan Carlos Meana.

**X Bienal Centroamericana
(San José eta Puerto Limón, Costa Rica)**

Abuztuak 30 – Irailak 30

Jesus Arpal artista bilbotarrak bienal honetan parte hartu zuen Etxepare Euskal Institutuaren laguntzarekin. Gelen Alcántararekin batera Jeleton taldea osatzen du Arpalek. *Historia política de las flores 4* instalazioa aurkeztu zuten bienalean.

**32 Bienal de Sao Paulo
(Sao Paulo, Brasil)**

Irailak 10 - Abenduak 11

Xabier Salaberria donostiarra Sao Pauloko 32. Bienalean egon zen Etxepare Euskal Institutuaren babesarekin, besteak beste. Salaberriak aparteko praxi bat garatzen du bere belaunaldiaren baitan, eta artea, diseinua eta arkitekturaren artean dagoen espazioan egiten du lan. Modernitatearen historia izan da eta da gaur egun bere sorkuntza ibilbideko ikerketa alor emankorrena.

**Guerrilla Girls: is it even worse in Europe?
Whitechapel Gallery
(Londres, Erresuma Batua)**

Urriak 1 – Martxoak 5

Xabier Arakistain komisario eta arte feministan adituak zuzendutako erakusketa honek Etxepareraren babesia jaso zuen. Guerrilla Girls artista feministen kolektibo newyortarraren lehen erakusketa izan da Erresuma Batuan. Europako 29 herrialdetako 383 museo zuzendariri beren programa eta bildumen inguruan bidalitako galdeketaren erantzunak islatzen ditu artearen munduan aniztasunaz edo aniztasun ezaz hausnarketa egiteko.

**X Bienal Centroamericana
(San José y Puerto Limón, Costa Rica)**

Agosto 30 – Septiembre 30

El artista bilbaíno Jesus Arpal participó, gracias al apoyo del Instituto Vasco Etxepare, en la X Bienal Centroamericana. Arpal forma parte, junto con Gelen Alcántara, del equipo Jeleton. En la bienal presentaron la instalación gráfica *Historia política de las flores 4*.

32 Bienal de Sao Paulo (Sao Paulo, Brasil)

Septiembre 10 – Diciembre 11

El artista donostiarra Xabier Salaberria participó en la 32 Bienal de Sao Paulo gracias a la colaboración del Instituto Vasco Etxepare, entre otras instituciones. Salaberria desarrolla una praxis única dentro de su generación, transita por el espacio en el que se encuentra el arte, el diseño y la arquitectura. La historia de la modernidad es, y ha sido a lo largo de su trayectoria creativa, el terreno de indagación intelectual más fructífero.

**Guerrilla Girls: is it even worse in Europe?
Whitechapel Gallery
(Londres, Reino Unido)**

Octubre 1 – Marzo 5

Dirigido por el comisario y experto en arte feminista Xabier Arakistain, esta exposición que contó con el apoyo de Etxepare, es la primera del colectivo neoyorquino de artistas feministas Guerrilla Girls en el Reino Unido. La exposición representaba los resultados de un cuestionario enviado a 383 directores de museos en 29 países en Europa en cuanto a su programa y colecciones, con el objetivo de indagar sobre la diversidad, o no, dentro del mundo del arte.



Sortzaileentzat nazioarteko egonaldi artistikoak **Residencias artísticas internacionales** para creadoras/es

Etxepare Euskal Institutuak hiru egonaldi artistiko programa bultzatu ditu Donostia 2016 Europako Kutur Hiriburua, Azkuna Zentroa eta Tabakalerarekin elkarlanean.

El Instituto Vasco Etxepare ha impulsado tres residencias artísticas –en colaboración con en Donostia / San Sebastián 2016 Capital Europea de la Cultura, Azkuna Zentroa y Tabakalerar respectivamente– para un total de siete artistas vascos.



**BASK jaialdia
(Wroclaw, Polonia)**
Uztailak 3-5

Etxeparek eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak Wroclaw hirian sustatuako egonaldi artistikoetan 2016. urtean parte hartu zuten artistek (Ainara LeGardon musikari eta performerria, Jaime de los Ríos media-artista eta Eneko Gil dantzaria) eta aurreko urtean egonaldia burutu zutenek (Matxalen de Pedro, Goiatz Labandibar eta Maialen Sarasua) jaialdi honen hirugarren edizioan parte hatu zuten euren proiectuekin. Wroclaw 2016 Europako Kultur Hiriburuak antolatutako ekitaldi honek programazio zabala eskaini zuen euskal kultura ardatz: moda tailerrak, interbentzio artistikoak, ikuskizunak, kontzertuak (Delorean), etab.

**Festival BASK
(Wroclaw, Polonia)**
Julio 3-5

La intérprete y performer Ainara LeGardon, el media-artista Jaime de los Ríos y el bailarín Eneko Gil, que realizaron residencias artísticas en Wroclaw impulsadas por Etxepare y Donostia / San Sebastián 2016 Capital Europea de la Cultura, así como los tres artistas seleccionados el año anterior -Matxalen de Pedro, Goiatz Labandibar y Maialen Sarasua- participaron con sus respectivos proyectos en la tercera edición de este festival organizado por Wroclaw 2016 Capital Europea de la Cultura, que durante tres días ofreció una programación variada con la cultura vasca como eje: talleres de moda, intervenciones artísticas, espectáculos, conciertos (Delorean), etc.

Azoka profesionaletan parte hartzea sustatzea Fomento de la participación en ferias profesionales

Azoka profesionaletan parte hartzeko diru-laguntzak

Euskal artisten lanak ezagutarazteko helburuarekin arte galeriek azoka profesionaletan parte hartzeko diru-laguntzak.

Subvenciones para la participación en ferias internacionales

Subvenciones otorgadas a galerías de arte para su participación en ferias internacionales de arte con objeto de difundir la obra de artistas vascos.

	2016	2015	2014	2013	2012
Eskatutako diru-laguntzak Ayudas solicitadas	7	5	5	6	10
Emandako diru-laguntzak Ayudas otorgadas	6	5	5	6	10
Onuradun kopurua Número de beneficiarios	3	2	3	4	6
Eskatutako zenbatekoa Total importe solicitado	47.157 €	45.000 €	41.800 €	44.610 €	64.569 €
Emandako zenbatekoa Total importe otorgado	36.000 €	36.000 €	39.800 €	42.000 €	64.000 €
Aurrekontua Presupuesto	36.000 €	36.000 €	40.000 €	42.000 €	64.000 €

* Existitzen diren bi kategoria ezberdinak azoketan (ARCO eta beste azokak) parte hartzeko emandako diru-laguntzen batura. *Suma de las subvenciones otorgadas para la participación en las dos categorías existentes: ARCO y otras ferias internacionales..*

Euskal galeriek parte hartu duten azoken banaketa geografikoa

Espainiar estatua	3 (ARCO, Art Madrid, We Are Fair, Feria Internacional de Videoarte)
Mexiko	1 (Zona Maco)
AEB	1 (Expo Chicago)

GUZTIRA

6

Distribución geográfica de las ferias en las que han participado galerías vascas



08

Hizkuntza eta unibertsitateak Lengua y universidades



Euskararen irakaskuntza eta erabilera munduan sustatze aldera, eta baita euskararen nazioarteko onespena indartzen jarraitzeko helburuz, Etxepare Euskal Institutuak aurrera jarraitu du nazioarteko unibertsitateetan euskara eta euskal kulturaren ikasketak sustatu eta optimizatzeko lanetan. Honetarako beti ere euskal ikasketak sustatu eta indartzeko sinatuta dauden lankidetza hitzarmen bidez osatutako unibertsitateetako irakurle sarea da oinarri, eta berau, katedra sarearekin batera, zabaldu eta sendotzeko lan-ildoa izan da nagusi. Ildo honen osagari garrantzitsua izan da egungo eta etorkizuneko irakurleen prestakuntza, eta baita irakurle sarearen baitan euskara ikasten ari diren ikasleei eskainitako udako prestakuntza trinkoa ere. Era berean, atzerriko unibertsitateetan euskal kulturaren inguruan kultur jardunaldi eta jarduera akademikoak sustatzeko eta sendotzeko (elkar-)lanean jarraitu du, euskal kultura munduratzeko estrategikoak diren publikazioen inguruan eginiko pausuak ere ahaztu gabe.

Con el objetivo de continuar en la labor de promoción universal de la enseñanza, el estudio y uso del euskera, así como de seguir en la promoción del reconocimiento internacional de la lengua vasca, el Instituto Vasco Etxepare ha continuado en la potenciación y optimización de los estudios de lengua y cultura vasca en la red de universidades con las que tiene suscritos convenios de colaboración para la implantación y consolidación de estudios de lengua y cultura vasca. En este contexto ha sido clave la línea de trabajo ya consolidada de la red de lectores de lengua y cultura vasca, así como la ampliación y consolidación del programa de cátedras en centros universitarios internacionales de calidad contrastada. Esta línea de trabajo está complementada con las acciones dirigidas a la formación de lectores y futuros lectores, así como a la formación complementaria intensiva de los estudiantes que aprenden euskera en la red internacional de lectores. Asimismo se ha continuado con la labor de promoción y apoyo a actividades académicas y culturales sobre temática cultural vasca en centros universitarios del exterior, sin olvidar la labor de apoyo a publicaciones estratégicas sobre cultura vasca.

Euskal ikasketen sarea atzerrian

Red de estudios vascos en el exterior

2015-2016 ikasturtean Etxeparereren sare akademikoa 18 herrialdetako 34 unibertsitatek osatu dute (22 Europen, 11 Ameriketan eta bat Asian). Euskara eta euskal kulturaren presentzia nazioarteko prestigiodun unibertsitateetan sendotzeko helburuarekin 2016. urtean dagoeneko indarrean zeuden bost hitzarmen berritu dira, eta hitzarmen berri bat sinatu da University of California Los Angeles unibertsitatearekin.

Ikasturtean zehar 1954 ikaslek burutu dituzte euskara eta euskal kultura ikasketak.

En el curso 2015-2016 la red académica de estudios vascos ha estado integrada por 34 universidades en 18 países (22 en Europa, 11 en América y uno en Asia). Con el fin de consolidar la presencia del euskera y la cultura vasca en universidades de prestigio internacional, en el año 2016 se renovaron cinco convenios ya existentes, y se firmó un nuevo convenio con la Universidad de California Los Ángeles.

Durante ese curso escolar un total de 1954 alumnos cursaron asignaturas euskera y cultura vasca.

Matrikulatutako ikasle kopuruaren bilakaera

Evolución del número de alumnos/as matriculados

Herrialdea	2015-2016	2014-2015	2013-2014	2012-2013	2011-2012	2010-2011
Espainiar estatua	167	163	151	202	188	195
Frantzia	96	108	129	126	40	0
Erresuma Batua	132	56	138	152	153	20
Irlanda	27	30	17	0	0	0
Alemania	228	183	185	298	130	40
Italia	19	9	45	35	57	25
Polonia	66	101	73	55	47	24
Finlandia	25	6	8	15	22	10
Txekiar Errepublika	46	63	49	76	69	67
Hungaria	18	31	22	35	0	0
Errusia	9	20	20	28	7	9
AEB	730	721	726	758	461	400
Mexiko	106	48	55	73	54	103
Argentina	43	45	35	40	63	38
Txile	182	177	128	124	182	104
Uruguai	12	22	21	72	25	70
Japonia	48	40	0	0	0	0
GUZTIRA	1954	1823	1802	2089	1498	1105

Era berean ondorengo unibertsitateetan euskara eta euskal kulturako ikasgaiak emateko irakasleak hautatzeko deialdiak egin dira: Freie Universität Berlin (Alemania), Universidad de la Habana (Cuba), Pontificia Universidad Católica de Chile (Txile), Universidad de Chile (Txile), Masarykova Univerzita (Txekiar Errepublika), University College Cork (Irlanda) eta Université de Pau et des Pays de L'Adour (Frantzia). Orotara 105 eskaera jaso dira.

Asimismo, se han organizado convocatorias para seleccionar personal docente para impartir asignaturas de euskera y cultura vasca en las universidades Freie Universität Berlin (Alemania), Universidad de la Habana (Cuba), Pontificia Universidad Católica de Chile (Chile), Universidad de Chile (Chile), Masarykova Univerzita (República Checa), University College Cork (Irlanda) y Université de Pau et des Pays de L'Adour (Francia), para las cuales se han recibido un total de 105 solicitudes.



Diruz-lagundutako unibertsitateen banaketa geografikoaren bilakaera

Evolución del número de universidades subvencionadas por curso escolar y zona geográfica

	15-16	14-15	13-14	12-13	11-12	10-11
Europa	22	22	23	22	16	13
Amerika	11	10	10	12	13	12
Asia	1	1	0	0	0	0
Afrika	0	0	0	0	0	0
Ozeania	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	34	33	33	34	29	25

**2015-2016 ikasturtean euskal ikasketak
eskaintzeko diruz-lagundutako unibertsitateak**

**Universidades destinatarias de ayudas para la
docencia de estudios vascos en el curso 2015-2016**

Espainiar estatua	Universidad Complutense de Madrid Universitat de Barcelona Universitat Autònoma Barcelona Universidad Nacional de Educación a Distancia (UNED)
Frantzia	Sorbonne Nouvelle - Paris III Université de Pau et des Pays de L'Adour
Erresuma Batua	The University of Liverpool University of Birmingham
Irlanda	University College Cork
Alemania	Universität Konstanz Universität Leipzig Freie Universität Berlin Johann Wolfgang Goethe Universität
Italia	Alma Mater Studiorum - Università di Bologna Università Ca' Foscari - Venezia
Polonia	Adam Mickiewicz University University of Warsaw
Finlandia	University of Helsinki
Txekiar Errepublika	Masarykova Univerzita
Hungaria	Eötvös Lorand University – Budapest University of Szeged
Errusia	Lomonosov Moscow State University
AEB	University of California, Santa Barbara University of Chicago University of Illinois at Urbana-Champaign Boise State University
Mexiko	Universidad Nacional Autónoma de México (UNAM)
Argentina	Universidad Nacional de La Plata
Txile	Universidad de Chile Pontificia Universidad Católica de Chile Universidad de Valparaíso Pontificia Universidad Católica de Valparaíso
Uruguay	Universidad de la República
Japonia	Tokyo University of Foreign Studies (TUFS)

**Euskararen eremu geografikotik kanpo euskal
ikasketak eskaini daitezen laguntzeko diru-
laguntzen bilakaera**

**Evolución de las ayudas para contribuir al mante-
nimiento de la docencia de estudios vascos fuera
del dominio lingüístico del euskera**

	15-16	14-15	13-14	12-13	11-12
Zenbatekoa Importe	563.680,92 €	533.698 €	541.055,48 €	594.282,41 €	555.498,87 €

Kultur jarduera unibertsitateetan Actividad cultural en centros universitarios

Etxepareren sare akademikoa euskal kulturaren za-balkunderako gune garrantzitsua da unibertsitateetan irakurleek, irakaskuntza lanaz haratago, antolatzen dituzten jarduerei esker.

Euskal zinema zikloa (Cork, Irlanda)

Urtarrilak 27 – Otsailak 10

University College Cork-en ospatutako euskal zinema zikloaren baitan Jose Mari Goenaga eta Jon Garañoren *80 egunean* (2010), Jon Maiaaren *Gazta zati bat* (2011) eta Asier Altunaren *Bertsolari* (2011) proiekztatu ziren.

‘Kimuak 2014’ eta ‘Kimuak 2015’ film laburren proiekzioa (Budapest, Hungaria)

Martxoak 1-8

Budapesteko Instituto Cervantes-en ‘Kimuak 2014’ eta ‘Kimuak 2015’ bildumetako film laburak proiekztatu ziren. Urte horietan Euskal Herrian egindako film labur onenen hautaketa da Kimuak. Emanaldiaren bakoitzaren ostean mahai-inguru bana egin zen ondorengo kideen parte-hartzearekin: Oxel Uribe-Etxeberria Lete, Szegedeko Unibertsitatean eta Budapesteko Eötvos Lörand Unibertsitatean euskara eta euskal kultura irakurlea; Márton Árva, zinema kritikoa; eta Péter Molnár, Kultúr Tapas aldizkariko erredakzio burua.

‘La Spagna Plurale’ jardunaldiak (Bologna, Italia)

Martxoak 2, 3, 4

‘La Spagna Plurale III: pluralità, diversità e visibilità de genere’ izenburuean, Bolognako Unibertsitatean hirugarren aldiz antolatutako jardunaldi hauek genero aniztasunean jarri zuten fokua. Hainbat hitzaldi eta mahai-ingurutan kultura eta hizkuntza ezberdinak genero aniztasunaren diskursoa nola gerturatzen diren aztertu zen. Mari Jose Olaziregi, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta Etxepare Euskal Institutuko Euskararen Sustapen eta Hedapenerako zuzendariak, eta Mariasun Landa idazleak parte hartu zuten, besteari beste.

La red académica de Etxepare es un importante foco de difusión cultural gracias las actividades que organizan los lectores (programas culturales, festivales, conferencias, ciclos de cine...) al margen de su actividad docente en cada uno de los centros universitarios.

Ciclo de cine vasco (Cork, Irlanda)

Enero 27 – Febrero 10

En el marco del ciclo de cine vasco celebrado en la University College Cork se proyectaron las películas *80 egunean* (2010) de Jose Mari Goenaga y Jon Garaño; *Gazta zati bat* (2011) de Jon Maia, y *Bertsolari* (2011) de Asier Altuna.

Proyección de ‘Kimuak 2014’ y ‘Kimuak 2015’ (Budapest, Hungría)

Marzo 1-8

El Instituto Cervantes de Budapest acogió la proyección de ‘Kimuak 2014’ y ‘Kimuak 2015’, una selección de los mejores cortometrajes realizados en el País Vasco en los años 2014 y 2015 respectivamente. Tras las proyecciones tuvieron lugar sendas mesas redondas con la participación de Oxel Uribe-Etxebarria Lete, lector de euskera en la Universidad de Szeged y de la Universidad Eötvos Lörand de Budapest; Márton Árva, crítico de cine; y Péter Molnár, redactor jefe de la revista KultúrTapas.

Jornadas ‘La Spagna Plurale’ (Bolonia, Italia)

Marzo 2, 3, 4

Bajo el título ‘La Spagna Plurale III: pluralità, diversità e visibilità di genere’ estas jornadas organizadas por tercera vez en la Universidad de Bolonia pusieron el foco en la pluralidad y la diversidad de género. En diversas conferencias y mesas redondas que tuvieron lugar se profundizó en el modo en que las diferentes lenguas y culturas han abordado el discurso de género. Las jornadas contaron con la participación, entre otras, de Mari Jose Olaziregi, profesora de la Universidad del País Vasco y directora para la Promoción y Difusión del Euskera del Instituto Vasco Etxepare y la escritora Mariasun Landa.

**Cinema Paradiso 2016****(Szeged, Hungaria)**

Martxoak 7-11

Szegedeko Grand Café-k antolatzen duen Cinema Paradiso zinema zikloaren baitan Jose María Goenaga eta eta Jon Garañoren *Loreak* (2016) filma eskaini zen.

'80 egunean' filmaren proiekzioa
(Mexiko Hiria, Mexiko)

Martxoak 11

Jose María Goenaga eta Jon Garañoren *80 egunean* (2010) filma UNAMeko (Universidad Nacional Autónoma de México) atzerriko hizkuntzen irakaskuntza zentroan proiektatu zen.

Historia, memoria eta nortasuna euskal zineman
(Brno, Txekiar Errepublika)

Martxoak 31

Brnoko Masaryk Unibertsitatean Alonso Andrés eta Javier Barajasek zuzendutako *Esbastika bat Bisasoan* (2013) dokumentala proiektatu zen eta ostean mahai-ingurua egin zen Santiago de Pablorekin, Historia Garaikideko irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) eta euskal zineman aditua.

Bilbori buruzko hitzaldia
(Paris, Frantzia)

Apirilak 1

Irati Burgués arkitekto eta diseinatzaileak Bilbori buruzko hitzaldia eman zuen Université Sorbonne Nouvelle - Paris III unibertsitatean. Hiriaren historia, gaur egungo errealitatea eta euskal kulturaren islan duen papera izan zituen hizpide.

Cinema Paradiso 2016**(Szeged, Hungría)**

Marzo 7 - 11

Dentro del ciclo de cine Cinema Paradiso del Grand Café de Szeged se proyectó la película *Loreak* (2016) de Jose María Goenaga y Jon Garaño.

Proyección de '80 egunean'
(Ciudad de México, México)

Marzo 11

La película Jose María Goenaga y Jon Garaño *80 egunean* (2010) se proyectó en centro de enseñanza de lenguas extranjeras de la UNAM (Universidad Nacional Autónoma de México).

Historia, Memoria e Identidad en el cine vasco
(Brno, República Checa)

Marzo 31

Proyección del documental *Una esvástica sobre el Bidasoa* (2013), dirigido por Alonso Andrés y Javier Barajas, y posterior mesa redonda con Santiago de Pablo, profesor de Historia Contemporánea de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) y especialista en cine vasco, en la Universidad Masaryk de Brno.

Conferencia sobre Bilbao
(Paris, Francia)

Abril 1

La arquitecta y diseñadora Irati Burgués ofreció una conferencia sobre Bilbao, su historia, su realidad actual y la propia ciudad como expresión de la cultura vasca en la Universidad Sorbonne Nouvelle - Paris III.

De la musique avant tout chose

(Paris, Frantzia)

Apirilak 7

Diziplina anitzeko topaketa honetan performancea, poesia eta kontzertuak erabili ziren hizkuntzen heterogeneotasuna esploratzeko. Aurelia Arkotxa idazleak, Marie Pourquié-Bidegain Sorbonne Nouvelle - Paris III Unibertsitateko irakurleak eta Miren Ibarluzea itzultzaiak parte hartu zuten, besteak beste.

Arkaitz Canorekin solasaldia

(Bartzelona)

Apirlak 26

Literaldia, Bartzelonako euskal literatura jaialdiaren baitan, Harkaitz Cano idazle euskaldunak eta Diego Ameixeiras galiziarrak solasaldi batean parte hartu zuten Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (UAB).

Basque Film and Discussion (Chicago, AEB)

Apirlak 28

Loreak (2014) filmaren proiekzioa Chicagoko Unibertsitatean eta Jose Mari Goenaga zuzendariarekin online solasaldia.

Euskal zinema zikloa (La Plata, Argentina)

Ekainak 6, 13, 20, 27

Asier Altunaren *Amama* (2015), Josu Martínez *Gure sor lekuaren bila* (2015), Ben Sharrock-en *Pikadero* (2015), eta Aitor eta Amaia Merinoren *Asier ETA biok* (2013) filmak ikusi ahal izen ziren La Platako udaletxearekin eta La Platako Unibertsitate Nazionalarekin elkarlanean antolatutako euskal zinema zikloan.

Euskaldunen jatorriari begirada zientifikoa

(Mexiko Hiria, Mexiko)

Abuztuak 26

Tonatiuh Ramírez Reyes UNAMeko (Universidad Nacional Autónoma de México) irakasleak hitzaldia eman zuen euskaldunen jatorriari buruz. Besteak beste, euskaldunen ustezko jatorri misteriotsua, antzinatasuna eta beste kulturekin zuten erlazioa jorratu zituen.

De la musique avant tout chose

(Paris, Francia)

Abril 7

Este encuentro multidisciplinar incluía performances, poesía y conciertos como vehículos para explorar la heterogeneidad de las lenguas. Contó con la participación de la escritora Aurelia Arkotxa, Marie Pourquié-Bidegain; lectora de euskera en la Universidad Sorbonne Nouvelle - Paris III y la traductora Miren Ibarluzea, entre otras.

Coloquio con Arkaitz Cano

(Barcelona)

Abril 26

En el marco de la Literaldia, el festival de literatura vasca de Barcelona, el escritor vasco Harkaitz Cano y el gallego Diego Ameixeiras participaron en un coloquio en la Universidad Autónoma de Barcelona (UAB).

Basque Film and Discussion (Chicago, EEUU)

Abril 28

Proyección de la película *Loreak* (2014) en la Universidad de Chicago y posterior coloquio online con Jose Mari Goenaga, uno de los directores.

Ciclo de cine vasco (La Plata, Argentina)

Junio 6, 13, 20, 27

Las películas *Amama* (2015), de Asier Altuna; *Gure sor lekuaren bila* (2015), de Josu Martínez; *Pikadero* (2015), de Ben Sharrock ; y *Asier ETA biok* (2013), de Aitor y Amaia Merino, se proyectaron en el ciclo de cine vasco organizado en colaboración con el Ayuntamiento de La Plata y la Universidad Nacional de la Plata.

Mirada científica al origen de los vascos (Ciudad de México, México)

Agosto 26

Conferencia a cargo del maestro en ciencias Tonatiuh Ramírez Reyes en la UNAM (Universidad Nacional Autónoma de México) en la que se abordaron aspectos como el supuesto origen misterioso de los vascos, su antigüedad y su relación con otras culturas.

Culturafest (Montevideo, Uruguay)

Irailak 9-10

Bi urtero ospatzen da Errepublikako Unibertsitatean hizkuntza eta kulturen jaialdi hau. Musika emanaldiak, klase irekiak, hitzaldiak eta dozena bat herrialdetako plater tipikoak dastatzeko aukera eskaintzen zuen gastronomia azoka egin ziren, besteak beste. Jaialdian euskara klaseak eskaini ziren eta euskal gastronomiaren plater klasikoak dastatzeko aukera egon zen.

Hungarieraz idatzitako lehen euskal gramatikaren 150. urterurrena (Budapest, Hungaria)

Irailak 22-23

2016an 150 urte bete ziren Ferenc Ribáry hizkuntzaliariak hungarieraz idatzitako lehen euskal gramatika argitaratu zuenetik. Hori dela eta hainbat mahai-inguru, hitzaldi eta ekitaldi antolatu ziren Eötvos Loránd Unibertsitatean eta Budapesteko Instituto Cervantes-en. Era berean, euskal gramatikari buruzko saiakera bat eta hungariera-euskara hiztegi bat argitaratu ziren.

Culturafest (Montevideo, Uruguay)


Septiembre 9-10

Este festival de lenguas y culturas que se celebra cada dos años en la Universidad de la República contó con actuaciones musicales, clases abiertas, charlas y una feria gastronómica donde los asistentes pudieron probar productos típicos de una decena de países. Se ofrecieron clases de iniciación el euskera y se pudieron degustar platos clásicos de la gastronomía vasca

150 aniversario de la primera gramática vasca en húngaro (Budapest, Hungría)

Septiembre 22-23

En 2016 se cumplieron 150 años de la publicación de la primera gramática vasca escrita en húngaro por el lingüista Ferenc Ribáry. Por este motivo se organizó un programa de conferencias, mesas redondas y actos culturales con académicos internacionales que se celebró en la Universidad Eötvös Loránd y en el Instituto Cervantes de Budapest. Asimismo, se publicaron un ensayo sobre la gramática vasca y un diccionario húngaro-euskeru.



Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian dokumentalaren proiekzioa (Texcoco, Mexiko)
Urriak 13-15

Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian (2014) dokumentala ikusteko aukera izan zen Chapingo Unibertsitate Autonomoan ospatu zen Historia, Humanismoa eta Kulturaren Nazioarteko V. Kongresuan. Bertan nutritiboak, kulturalki egokialdi eta modu jasangarri eta ekologikoan ekoitziak diren elikagaiak kontsumitzeko eskubidea gauzatzeko herrialde ezberdinek –Euskal Herria tartean– izan dituzten zaitasunak aztertu dira.

**Iberian and Latin American Week
(Liverpool, Erresuma Batua)**
Urriak 31 – Azaroak 6

Liverpooleko Unibertsitatean egin ziren jardunaldi hauek Iberiar Penintsulako eta Latinoamerikako kulturak ezagutzen ematea zuten helburu. Euskal gaietan loturik bi hitzaldi antolatu ziren. Lehenengoa, ‘Euskal Herria – Basque Country. Modern Basque-language music’, Marina Balenciagak eman zuen eta euskal musikak 1960tik gaurdaino izandako bilakaera izan zuen hizpide. Bigarrena, ‘Changing boundaries in the Basque Country: an interdisciplinary perspective’, Zoe Bray doktoreak eman zuen eta mugak eta mugetan bizi den jendea izan zituen hizpide.

Cinema Paradiso 2016 (Szeged, Hungaria)
Azaroak 21-25

Szegedeko Grand Café-k antolatzen duen Cinema Paradiso zinema zikloaren baitan Montxo Armendarizen *Obaba* (2005) filma eskaini zen.

**Basc per a Catalanoparlants
(Barcelona)**
Azaroak 24

Basc per a Catalanoparlants liburua aurkeztu zuten Beatriz Fernández Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasleak eta Anna Pinede IKEReko (Euskara eta euskal testuen ikerketa-zentroa) ikerlariak, liburuaren egileak biak.

Proyección de ‘Bide berriak: soberanía alimentaria en Euskal Herria’ (Texcoco, México)
Octubre 13-15

Proyección del documental *Bide berriak: soberanía alimentaria en Euskal Herria* (2014) en el V. Congreso Internacional de Historia, Humanismo y Cultura celebrado en la Universidad Autónoma Chapingo, donde se analizaron los problemas que los pueblos han tenido para ejercer el derecho a consumir alimentos nutritivos y culturalmente adecuados y accesibles, producidos de forma sostenible y ecológica, entre ellos el País Vasco.

**Iberian and Latin American Week
(Liverpool, Reino Unido)**
Octubre 31 – Noviembre 6

En el marco de estas jornadas de la Universidad de Liverpool, que tienen como fin dar a conocer los idiomas y culturas de la Península Ibérica y Latinoamérica, tuvieron lugar dos conferencias relacionadas con temas vascos. La primera ‘Euskal Herria – Basque Country. Modern Basque-language music’, a cargo de Marina Balenciaga, analizó la evolución de la música en euskera desde 1960 hasta la actualidad. La segunda ‘Changing boundaries in the Basque Country: an interdisciplinary perspective’, a cargo del doctor Zoe Bray, reflexionaba sobre las fronteras y sus gentes.

Cinema Paradiso 2016 (Szeged, Hungría)
Noviembre 21-25

Dentro del ciclo de cine Cinema Paradiso del Grand Café de Szeged se proyectó la película *Obaba* (2005), de Montxo Armendariz.

**Basc per a Catalanoparlants
(Barcelona)**
Noviembre 24

Presentación del libro *Basc per a Catalanoparlants* a cargo de sus autores, Beatriz Fernández, profesora de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) y Anna Pinede, investigadora de IKER (centro de investigación del euskera y textos vascos).

Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskararen Nazioarteko Eguna –abenduak 3– ospatzeko hainbat jarduera antolatu ziren Etxepareren irakurletza sarea osatzen duten unibertsitateetan.

Leipzig (Alemania)

Azaroak 29 – Abenduak 5

Leipzigeko Unibertsitatean Maider Oleagaren *Iragan gunea: Berlin* (2016) eta Hannot Mintegiaren *Gernika. Markak* (2015) dokumentalak ikusteko aukera egon zen. Halaber, Ingo Niebel historialari eta kazetariak hiru hitzaldi eman zituen: 'Gernika und die Deutschen' (*Gernika eta alemaniarrak*), 'Agirre in Berlin oder der Mythos der allmächtigen Gestapo' (*Agirre Berlín o el mito de la todopoderosa Gestapo*) eta 'Telesforo de Monzón, Baske, Poet und Frontman der Unabhängigkeitsbewegung' (*Telesforo Monzón. Euskalduna, poeta eti mugimendu independentistaren aitzindaria*). Era berean, irakurraldi poetikoa ere egin zen Rikardo Arregi poetaren esku.

Frankfurt (Alemania)

Azaroak 26 – Abenduak 6

Goethe Unibertsitatean Maider Oleagaren *Iragan gunea: Berlin* (2016) eta Hannot Mintegiaren *Gernika. Markak* (2016) dokumentalak proiektatu ziren. Era berean, Ingo Niebel historialari eta kazetariak 'Gernika und die Deutschen' (*Gernika eta alemaniarrak*) hitzaldia eman zuen.

Cork (Irlanda)

Azaroak 30

Corkeko University College-en hainbat jarduera antolatu ziren. Horien artean irakurraldi poetiko bat, itzulpen tailer bat eta Iñaki Goiogana historialariak emandako hitzaldi bat: 'Gerra Zibilaren euskal erbestea. Eusko Jaurlaritzaren lana'.

Santa Barbara (AEB)

Abenduak 1

University of California - Santa Barbara (UCLA) unibertsitatean jarduera akademiko eta aisiaidiko ekintzak burutu ziren. Besteak beste, Euskal Herriari buruzko erakusketa, Begoña Etxeberria idazlearen *The Hammer of the Witches* liburuaren aurkezpena eta euskal pintxo dastaketa.

Batzelona

Día Internacional del Euskera

Con motivo del Día Internacional del Euskera –3 de diciembre– tuvieron lugar diversas actividades en la red de lectorados de Etxepare.

Leipzig (Alemania)

Noviembre 29 – Diciembre 5

En la Universidad de Leipzig se proyectaron los documentales *Iragan gunea: Berlin* (2016), de Maider Oleaga y *Gernika. Markak* (2016), de Hannot Mintegia, y el historiador y periodista Ingo Niebel impartió tres conferencias: 'Gernika und die Deutschen' (*Gernika y los alemanes*), 'Agirre in Berlin oder der Mythos der allmächtigen Gestapo' (*Agirre en Berlín o el mito de la todopoderosa Gestapo*) y 'Telésforo de Monzón, Baske, Poet und Frontman der Unabhängigkeitsbewegung' (*Telésforo Monzón. Vasco, poeta y precuros del movimiento independentista*). También tuvo lugar una lectura poética a cargo del poeta Rikardo Arregi.

Frankfurt (Alemania)

Noviembre 29 – Diciembre 6

En la Universidad Goethe se proyectaron los documentales *Iragan gunea: Berlin* (2016), de Maider Oleaga y *Gernika. Markak* (2016), de Hannot Mintegia, y tuvo lugar la conferencia 'Gernika und die Deutschen' (*Gernika y los alemanes*) a cargo del historiador y periodista Ingo Niebel.

Cork (Irlanda)

Noviembre 30

En la University College de Cork se celebraron varias actividades incluidas una lectura poética, un taller de traducción y la conferencia 'El exilio vasco de la Guerra Civil. La labor del Gobierno Vasco' a cargo del historiador Iñaki Goiogana.

Santa Barbara (EEUU)

Diciembre 1

En la Universidad de California - Santa Bárbara (UCLA) se organizaron diversas actividades académicas y lúdicas como una exposición sobre el País Vasco, la presentación del libro *The Hammer of the Witches*, de Begoña Echeverría, y una degustación de pintxos vascos.

Abenduak 1

Joseba Tapia musikariak eta Koldo Izagirre idazleak *Burua gora eman genduen pausua / El pas que vam donar amb el cap ben alt* ikuskizuna aurkeztu zuten Bartzelonako Unibertsitatean (UB) eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (UAB) Euskararen Nazioarteko Eguna zela eta.

Bologna (Italia)

Abenduak 1

Bolognako Unibertsitatean literatura eta itzulpengintzari buruzko solasaldia egin zen Mariasun Landa idazlea eta Roberta Gozzi itzultzalearen parte-hartzearekin.

La Plata (Argentina)

Abenduak 1-3

La Platako Unibertsitate Nazionalean ‘Euskararen historia Argentinan’ hitzaldia eman zuen Mikel Ezkerro historialariak. Era berean, euskara hastapen klaseak eskaini ziren eta bazkari herrikoia egin zen La Platako Euskal Etxean.

Brno (Txekiar Errepublika)

Abenduak 1

Masaryk Unibertsitatean euskal gastronomía tailerra antolatu zen.

Santiago (Txile)

Abenduak 3

Euskadien Txile, Peru eta Kolonbiako Ordezkaritzarekin eta Santiago Euskal Etxearekin elkarlanean hainbat aisiaaldi jarduera antolatu ziren: ibilaldia, esku pilotu erakustaldia, eta txalaparta eta euskal dantza ikastaroa, besteak beste.

**Euskal literaturari buruzko hitzaldia
(Leipzig, Alemania)**

Abenduak 12

Mikel Ayerbe Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasleak euskal literaturari buruzko hitzaldia eman zuen: ‘Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua’. Ayerbek, aipatutako idazleen poetika, sorkuntza prozesuak eta joera estetikoak azaldu zituen.

Barcelona

Diciembre 1

El músico Joseba Tapia y el escritor Koldo Izagirre crearon el espectáculo *Burua gora eman genduen pausua / El pas que vam donar amb el cap ben alt* a propósito del Día Internacional del Euskera, y lo presentaron en las Universidad de Barcelona (UB) y en la Universidad Autónoma de Barcelona (UAB).

Bolonia (Italia)

Diciembre 1

Coloquio sobre literatura y traducción en la Universidad de Bolonia de la mano de la escritora Mariasun Landa y la traductora Roberta Gozzi.

La Plata (Argentina)

Diciembre 1-3

En la Universidad Nacional de La Plata se organizaron la conferencia ‘La historia del euskera en Argentina’ a cargo del historiador Mikel Ezkerro y clases de iniciación al euskera. También se celebró una comida popular en la Euskal Etxea de La Plata.

Brno (República Checa)

Diciembre 1

En la Universidad Masaryk se organizó un taller de gastronomía vasca.

Santiago de Chile (Chile)

Diciembre 3

En colaboración con la Delegación del Gobierno Vasco en Chile, Perú y Colombia y la Euskal Etxea de Santiago de Chile se organizaron diversas actividades lúdicas como una excursión, una exhibición de pelota vasca y cursos de txalaparta y danzas vascas.

**Conferencia sobre literatura vasca
(Leipzig, Alemania)**

Diciembre 12

Conferencia sobre literatura vasca a cargo de Mikel Ayerbe, profesor de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU). Bajo el título ‘Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua’, Ayerbe, expuso la poética, procesos de creación y las tendencias estéticas de los escritores mencionados.

Euskal ikasketen katedrak Cátedras de estudios vascos

Euskara eta euskal kulturako katedrek euskal ikasketen irakaskuntza espezializatua eta ikerketa akademikoa sustatzea dute helburu. Irakasle espezializatuak edo artista eta sortzaileak izaten dira katedra horietan klaseak ematen dituztenak. Etxepare Euskal Institutoak nazioarteko zortzi katedra jarri ditu abian honez gero eta guztietan euskal ikasketei buruzko programa akademikoak antolatzen ditu urtero.

Las cátedras de estudios vascos tienen como finalidad fomentar e impulsar el conocimiento y la investigación de temas específicos sobre la lengua y la cultura vasca, a través de profesores especializados y de los propios creadores. El Instituto Vasco Etxepare ha puesto en marcha hasta la fecha ocho cátedras internacionales, todas ellas realizan anualmente programas académicos sobre estudios vascos.

Euskal ikasketen katedra kopuruaren bilakaera

	15-16	14-15	13-14	12-13	11-12
GUZTIRA TOTAL	8	6	4	3	2

* Euskal ikasketen katedrak abian jartzeko indarrean dauden hitzarmenen kopurua. [Número de convenios en vigor con universidades para la puesta en marcha de una cátedra de estudios vascos](#).

2015-2016 ikasturtean zehar bost programa akademiko garatu dira eta bi hitzarmen sinatu dira katedra berri bana sortzeko: William A. Douglass Katedra, Massachusetts Amhersteko Unibertsitatean (AEB); eta Jean Haritschelhar Katedra Bordeaux-Montaigne Unibertsitatean (Frantzia).

Evolución del número de cátedras de estudios vascos

Durante el curso académico 2015-2016 se han desarrollado cinco programas y se han firmado sendos convenios para la creación de dos nuevas cátedras: William A. Douglass en la Universidad de Massachusetts Amherst (EEUU) y Jean Haritschelhar en la Universidad Bordeaux-Montaigne (Francia).



**Manuel Irujo Katedra
(Liverpooleko Unibertsitatea)**
Martxoak 3

Manuel Irujo Fellowship Katedra, Liverpooleko Unibertsitateko Department of Cultures, Languages and Area Studies delakoan kokatua, 2014-2015 ikasturtean jarri zen abian, eta ikasturtero egiten da. Irakasle gonbidatuak ikastaroa ematen du, Euskal Herriko Historia eta Politika landuz orokorrean, eta euskal erbestean sakonduz, honen gaineko ikerketak eta irakaskuntza sustatzea baita bere helburua.

2015-2016 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Nerea Arruti izan zen irakasle gonbidatua, eta Euskal Herriko sorkuntza híbrido eta garaikidea izan zituen aztergai. Zinemagileak, idazleak, arte kritikariak eta akademikoak bildu zituen jardunaldiak, filmak eta poesia irakurketak egungo praktika artistiko-en inguruko analisi eta eztabaidekin tartekatuta.

**Koldo Mitxelena Katedra
(Chicagoko Unibertsitatea)**
Martxoak 28 - Apirilak 29

Ipar Ameriketako unibertsitate-esparruan euskal ikasketak zabaltzea du xede 2012. urtetik martxan den katedrak honek. Chicagoko Unibertsitateko Division of Humanities delakoan txertatua dago, eta ikasturtero entzute handiko euskal irakasleren bat joaten da bertara, lauhileko batez Chicagoko Unibertsitatean euskal ikasketa humanistikoekin zerikusia duten eskola, mintegi eta hitzaldiak ematera.

2015-2016 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) irakasle eta Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendari Mari Jose Olaziregik eskaini zuen programa akademikoa, eta azken lau hamarkadetan iraganeko memoria oroitzeak euskal literaturan izan duen eragina izan zuen aztergai. Zehazki, euskal literaturaren bilakaera aztertu zuen kontakizunen bitartez, 1980ko hamarkadan iragan mitiko bat gogoratzen zutenak, eta baita gure iragan gertuko egoera politiko erreferente bilakatu diren lanekin.

**Cátedra Manuel Irujo
(Universidad de Liverpool)**
Marzo 3

